

GIPUZKOA

440 kizki-lagun bildu nahi dituzte igandean Usurbilen

Kizki Egunaren seigarren edizioan marka berri bat ezarri nahi dute

EL DIARIO VASCO |

@diariiovasco

27 noviembre 2014
15:59

Igandean egingo da seigarren aldiz Kizki eguna eta oraingo honetan Usurbilen izango da hitzordua. Ohiko bihurtzen ari denez, urtetik urtera Kizki Egunarekin bat egiten ari dira eskualdeko udalerri ezberdinak, herritarren parte-hartzearen inguruko

marka ezarri nahian. Ekimen honek 2009an du sorburua, urte horretan eman baitzion hasiera saio original horri Goldea elkarteak, sagardoaren inguruko gizarte eta kultur jarduera sustatzeko helburuarekin. Eguneko ekitaldi nagusia, kizkiarekin egiten den sagar biltze herrikoia izaten da. Erronka, ahalik eta jende gehien biltzea da. Astigarragan egin zuten lehen marka, 311 kizki-lagun bilduta eta Hernanik egin zuen gerora orain arteko markarik onena, 436 kizki-lagun erakarrita.

Usurbilen egingo den seigarren edizioaren ondoren Errenteriaren txanda izango da, eta 2016an berriz ere Astigarragak hartuko du lekukoa. Horrek emango dio amaiera sagardoaren inguruko jarduera sozioekonomikoarekin eta kulturalarekin lotura duten eskualdeko herrietan barrena egindako ibilbide zoragarriari. Hortaz, datorren igandeak hitzordua izango dugu guztiok Usurbilen, eguerdiko 12:30ean. Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak gaur egungo marka gainditu eta 440 kizki-lagun biltzea izango du erronka. Goldea elkarteak, gizarte eta kultur ekimen honen sustatzaile izan denak, bere esker ona adierazi nahi die ekimenean parte hartu izan duten udalerri guztietako elkarte laguntzaileei eta herritarrei.



Iaz Donostiako Alde Zaharrarean ospatu zen Kizkia Eguna / SARA SANTOS



Llena tu agenda de planes

¿Playa o nieve? Tú eliges este
PUENTE DE DICIEMBRE
www.iberiaexpress.com

SIN
openbank

Deposito 2% TAE a 3

Meses

La mejor forma de ahorrar.
Infórmate y Hazte Cliente con
Openbank
www.openbank.es

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariiovasco.com

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.